

Itzurrun

Osteguna, 2011ko ekainaren 2a

Txirrita hil zela 75 urte beteko dira bihar; Goizuetako plazan kantatu zuen azken aldiz II-III

BETI UMOREZ, AZKEN HATSA ARTE



Txirrita, ezkerrean, 1930ean, Sailburu bertsolariarekin. GUREGIPIUZKOA / CC BY-SA

Donostia 471.088 turistek bisitatu dute 2010ean, inoiz baino gehiago

2009arekin alderatuta, bisitari kopuruak %13 egin du gora; «errekor historikoez betetako urtea» izan dela esan du Donostia Turismoa erakundeak **o VII**



Turista talde bat, Kontxako badian. IGONE FERNANDEZ MARIEZKURRENA

luze-zabalean >

Duela 75 urte hil zen Txirrita. Bertsolariak Altzako Gazteluene baserrian eman zituen bere bizitzako azken hamabost urteak. Goizuetako plazan kantatu eta gero, ondoezak jota, 1936ko ekainaren 3an zendu zen.

Parrandazalea bezain azkarra

Aritz Sorzabal

Zenbat errezo egin izan det / nere denboran elizan / ta pozik nago ikusirik / pakian nola gabilzan / ni naizen baino kobardorikan / inoz ezin leike izan / semerik gerra ez joateatik / mutilzar gelditu nitzan».

Gerra zitalaren ondoren txararak gaiari, bertso honekin erantzun zion Txirritak 1936ko urtarilean. Egun hartan, Viktoria Eugenia Antzokian, Txirritak be-

rak Bertsolari Txapelketa Nagusiaren bigarren ekitaldiko txapela jantzi zuen, aurreko urtean *Basarriren* atzetik txapeldunorde izan eta gero. Uztapiderekin berdinduta bukatu zuela onartu zuen epaile batek, baina, bertsolari gazteak txapela aurrerago janzteko aukera izango zuelakoa –hiru txapel jantziko zituen orotara Uztapidek–, Txirritari eman zioten omenaldi gisa.

Txapelak txapel, handik hila-bete gutxira, bertsolari gipuzkoarra Altzako Gazteluene baserrian

hil zen. Goizuetako plazan, bazkaldu ondorengo saioa egin, eta ondoezik sentitu zen. Handik etxera eraman zuten eta egun batzuetara, ekainaren 3an, zendu zen, 75 urte zituela. «Oraintxe 150 kilo ez daude gaizki» izan omen ziren bere azken hitzak, gazta zaharra gustura jan ondoren. Beti txantxetan, beti umorez, azken hatsa arte. Halakoa zen Txirrita.

Hamalau urterekin, bertsotan Jose Manuel Lujanbio Retegi, *Txirrita*, 1860ko abuztuaren 14an jaio

zen, goizeko hiruretan. Gurasoak Bautista hernaniarra eta Juana Josefa oiartzuarra izan zituen. Hernanin jaio zen, Ereñotzu auzoan, Latze-Zar izeneko baserrian. Bera baino zaharragoa arreba bat zuen; gazteagoak, berriz, beste bost anaia-arreba zituen.

Hamahiru urte zituela, Errenteriara, Txirrita baserrira, joan zen bizitzera; hortik bere goitizena. Bere bizitzako azken hamabost urteak, aldiz, Altzako Gazteluene baserrian eman zituen, arrebaren etxean.

Hamalau urterekin kantatu zuen lehen aldiz plazan, Ereñozuko San Antonio ermitaren aurrean. Bere izaera bertsoetan islatu zuen, hasiera hasieratik. Umore handikoa, beti bihurrikerietan zebilen. Horregatik, gazte gaztetatik, bizipenak pilatu zituen. Hain zuzen ere, berealdiko ospea zuen hargin andaluziar bat Ereñotzura etorri omen zen. Txirrita mutikoa, beste batzuekin batera hargin-mutil lanetan ibili ohi zen. Dirudienez aurreko egunean andaluziar harginak horma oker xa-



Txirrita, erdian, sagardotegian. JOXE ERAUSKIN

www.irutxulo.hitza.info

auzoetako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berria

marra egin omen zuen. Inork ez ikusteagatik, andaluziar hargina goizean goiz joanda, mailuarekin horma barrualdera kolpatuz ari omen zen Txirritak ikusi eta bertso ospetsu hau bota zionean: Aiziak biali du / andikan onuntza / geroztik emen dabil / gure andaluz / argiñ ona zala ta / zakurraren putza / bera eroriko dek / ez akiyok bultza.

Hargin ona zen, baina festa zela-eta hainbatetan ez zen lanera joaten

Heldua zenean ere kanturako noiznahi zegoen prest. Ezkolagabea izan arren, irakurtzen bazekien, eta gustatu egiten zitzaion. Trufa eta parrandaren eredu gisa azaldu arren, abila zen gaiei sarkontasunez heltzeko unean. Honen harira, Politika eta, bereziki,

gizarte arazoei eskainitako printzek ezagun egin zuten Txirrita; *Foruak kendu zituenari, Cubako gerrarenak, Norteko trenbideari, Mundu ontako bizimodua eta Pasaiaiko huelga* bezalako bertso-sortak, horren argigarri.

Pello Errota, Udarregi, Otaño, Gaztelu, Artzai Txikia Sailburu eta Frantsesa izan zituen, besteak beste, bertsolari lagunak.

Labankada eman zioten

Maiorzagoa bazuen ere, baserria utzi eta hargintzan lan egitea erabaki zuen Txirritak. Alferra baino, parrandazale amorratua zen, eta horrek lanean arazoak sortu zizkion. Hargin ona zen, baina parrandak luzatzen zitzaizkion eta ez zen lanera joaten. Astean hirutan sagardotegira joan eta hurrengo egunean lanera joan gabe egoten zen hainbatetan. Bertsoan ibiltzeko, ordea, ez zuen arazorik; egun

oso bertsoetan pasatzeko gai zen, oso argia baitzen.

Noizbehinka baten bat berarekin haserretu egiten zen bertsoetan esandako zerbaitegatik. Behin kartetan ibili ondoren, galdu zuen batek Txirrita etxera zihoala, labankada eman zion. Nahiko gaizki egon zen, sendagi-leak ere osatzeko aukera gutxi zituela esan zion, baina azkenean onik atera zen.

Azken urteak Gazteluene baserrian eman zituen, Altzan. 60 urte zituen arrebaren etxera iritsi zenean eta nahiko lodia eta baldarra zen. Normalean goizeko hamaikak inguru altxatzen zen, eta gosaldur beharrean, hamaiketako modukoa egin ohi zuen, gazta eta ardoarekin.

Martillun baserrira joaten zen lagunekin ardo batzuk edatera eta han, egonean, bertsoetan egiten zuen. Ez zitzaion erraza egiten alde batetik bestera mugit-

tzea; orduan, Juanaene baserriko Evaristok aberentzat zuen gurdia hartu, han igo eta Gazteluenera eramaten zuen bueltan. Garai hartan, bitarteko asko egon ez arren, baserri guztietan gurdi bat zegoen. Herri batean bertsoetan entzun nahi bazuten, gurdiarekin bila joaten ziren eta gero, saioa eta parranda ondoren, etxera eramaten zuten.

Bertsotan egon ondoren, patxintxiak eramaten zituen etxeko haurrentzat

Bizipenak bizipen, gizon ona zen. Bertsoetan egon ondoren, etxera ekartzen zutenean, haurrentzat garai hartako patxintxiak erosten zituen; gaileta borobil txikiak, alegia. Noiz iritsiko zain egoten ziren Gazteluenean.

• asorzabal@hitza.info

Norbaiten kontrako bertso-paperak egin zitzen eskatzen zioten

→ Txirritarengana jende asko joaten zen norbaiten kontrako bertso-paperak egin zitzen eskatzera, Antonio Zabala euskaltzain eta ikerlariari kontatu ziotenez.

Desamodio kontuak eta mota guztietako arrazoiengatik sortutako ezin ikusiak ziren, besteak beste, bertso horietako gaiak. Enkargatutako gaia-aren gainean bertso-sorta bat buruz konposatzen zuen Txirritak, eta bere ilobak paperean jarri egiten zuen, gero inprentara eraman eta azoka egunetan saltzeko. Eskolarik gabea zen bertsolari gipuzkoarra; irakurtzeko gai bazen ere, ez zekien idazten. Horregatik diktatzen zizkion bertsoak ilobari.



Goian, artaburuak aletzen; behean, Gazteluene. JOXE ERAUSKIN-ANTXOTARROK HISTORIA MINTEGIA

Goian, Txirrita, Olegario eta Gaztelurekin; behean, hainbat bertsolariarekin. GUREGIPIZKOIA / CC BY-SA-JOXE ERAUSKIN

IRUTXULOKO **hitza**^{info}

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.irutxulo.hitza.info

Eraman/bidali izen-emate orria: Katalina Eleizegi 36 behea • 20009 DONOSTIA

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Europako Kultur Hiriburua izendatzen duen epaimahaia hirian izan da

➔ 2016ko Europako Kulturaren Hiriburua izendatzeko ardura duten epaimahai-kideak bisitan etorri dira, hainbat eragilerekin elkartzeko helburuarekin. Enpresariak, unibertsitateko ordezkariek, finantza arloko adituek, artistek, kirolariak edota euskararen alde lanean ari diren herritarrek hitz egin dute eurekin. MIKEL GOÑI




Ekain galeriara itzuli dira Juan Luis Goenagaren paisaiak

➔ Hiru urte eta gero, Juan Luis Goenaga margolaria Parte Zaharreko Ekain galeriara itzuli da. Etxetik gertu dituen paisaiak zintzilikatu ditu; Kontxako pasealekua, kaia, Sagues... «Gauza bera hamaika aldiz pintatu dezaket, baina beti beste modu batean egingo dut», esan du donostiarrak. Erakusketa uztailaren 23a bitartean izango da ikusgai. NEREA LIZARRALDE



Espainiako Gastronomiaren Saria eman diote Elena Arzaki

➔ Elena Arzakek Pepe Rodriguez Reyesekin batera jaso du 2010eko Espainiako Gastronomiaren Saria. Andoni Luis Adurizek buru duen Mugaritz jatetxean ere zoriekoak dira, bertako langile Jose Ramon Calvo izendatu baitute areto jefea onena. AMAIA PORTUGAL



La Anunciata ikastetxeko lau ikasle saritu ditu Elhuyar Fundazioak

➔ Altzako La Anunciata ikastetxeko lau ikasle saritu ditu Elhuyar Fundazioak *Teknoskopia* lehiaketaren irabazle izendatuta. Fundazioak orain bost urte abian jarri zuen *Teknoskopia*. Ideia lehiaketa izatetik, aurten, ikerketa eta teknologia proiektuen lehiaketa izatera pasatu da. TEKNOLOGIA



Iritzia

Harri Aroa



Aritz Sorzabal Kazetaria

Historiako garai bat da Harri Aroa, giza teknologiaren hedapena eta Ekialdeko Afrikatik mundu osara zabaltzea hartzen duena. Garai honetan hasi zen gizateria nekazaritzan, zenbait abere etxekotzen eta kobre mea galdatzen metal gotorra lortzeko. Historiarreko garaitzat jotzen da, gizateriak oraindik ez zuelako idazten ikasi. Bi garai nagusitan bana daiteke: Paleolitua eta Neolitua.

Paleolitua osoaldi luzea da; gizakiak sortutako lehen kulturarekin hasi —Kristo aurreko 3.000.000 urtean— eta Kristo aurreko 9000. urte arte hartzen du. Denbora luze horretan gizaki mota ezberdinak sortu eta galdu egin ziren, gaur egun ezagutzen dugun *Homo sapiens* gizakiarenganaino iritsi arte. Garai honi harri landuaren aldia deitzen zaio, antzinako gizaki mota bakoitzak modu berezi eta ezberdinez landu ohi baitzuen harria; gero eta trebezi handiagoa eta modu konplexuagoa, alegia.

Neolitua, aldiz, Kristo aurreko 7000. urtean hasi zen gutxi gora behera, Ekialde Hurbilean. Lehen iraultzat jotzen da, gizakiak harripari eta biltzaile izatetik ekoizle izatera igaro baitziren. Beraz, elikaduraren kontrola lortu zuen gizakiak. Ardiak, behiak, ahuntzak eta zeriak hezten hasi ziren, animalia taldeak zaintzen bazituzten haragia, esnea eta larrua lortzen baitzituzten. Era berean, fruituak landatzeari ekin zioten.

Honeraino, Wikipediak Harri Aroari buruz esaten duena. Gogorra ekarri dut datozen lau urteetan, Bildu Donostiako eta Gipuzkoako aukera politikoa bozkatuena izan eta gero, garai horretara itzuliko garela. Hori dio, behintzat, PPk; PSE eta EAJ alderdien babesarekin. Izan ere, azken hauen arabera, Bildurekin «progresoa» eten egingo da.

Abiadura Handiko Trena, errauste planta, Pasaiako kanpoko portua, Donostia 2016... egitasmo horiek guztiak arriskuan dira Bildu agintzen badu, euren esanetan. Ez dute kontutan hartzen, ordea, herritar asko proiektu horien aurka daudela eta maiatzaren 22ko hauteskundeetan emaitzak horren isla izan zirela, besteak beste. Ea orain, oposizioan, behingoz, horretaz jabetzen diren.

o asorzabal@hitza.info

Gaztetxoak udal zingotzietan lekuan eseri dira berriro

➔ Hiriko 27 ikastetxek hartu dute parte Eskolako Agenda 21 egitasmoan. Aurtengoan, egun batez udal zingotzietan lekuan eseri diren gaztetxoak ur kudeaketa hobetzeko proposamenak egin dituzte. XABIER ETXABE



Bildu EAJ eta PSE-EEekin elkartu da udal gobernuari buruz hitz egiteko

➔ Bildu, udal gobernu osatzeko, Donostiako Udalean ordezkaritza izango duten alderdien arteko bilerekin die. Zazpi zingotzietan lortu dituen PSE-EE eta sei izango dituen EAJ alderdiekin elkartu da egunotan. BILDU



Loiolako pilotalekuko eraberritze lanak amaitu dituzte

➔ Loiolatarrek eta pilota asintzera doazen Alde Zaharreko Kirol Elkarteko kideek pilotalekua eraberritua dute jada erabilgarri. Eraberritze lanen ostean, erosoago ibiliko dira pilotariak; komun berriez gain, aldagela eraiki dute, besteak beste. ESTITXU ZABALA

Ustez E coliz gaixotutako gizona artatu dute Donostia Ospitalean

➔ Alemaniako pepino edo luzoker kutsatuek ustez infektatutako gizon bat dago Donostia Ospitalean. Gaixoa 43 urteko zarauztarra omen da, eta beherakoarekin eta deshidratatuta ospitaleratu zuten maiatzaren 20an. ESTITXU ZABALA



iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarki laburren ataria

ostalaritzan lan bila nabil
non aurkitu baina?

etxea saldu edo alokatu nahi baduzu
uztazten
mendiak zurruta daukajada, erabiltzen
ez duzun materiala duzue etxean?

liburuak diskoen truke hartu nahi
dituen norbaiten bila nabil

sofa berritu duzu eta zaharrarekin
ez dakizu zer egin?

haurra koskortu zaizu eta dagoeneko
kotxea ez duzu behar?

zergatik joan bakarrik lantokira
autoa konpartitu dezakezuean?

jarri zure
iragarkia doan!

Interneten

iragarki guztiak doan

Paperean

ostiralean doan

saldu eta errentan eman ez beste iragarki guztiak
aukeratu papereko edizioa ere iragarkia sartzerakoan

Iragarkien prezioak:

aste bat 5 € / bi aste 9 € / hiru aste 12 € / bost aste 17 €

Kategoria berriak
Sare sozialetara loturak
Abisuak posta elektronikoko eta SMS bidez
Bilatzaile garatuak

...

Donostia Turismoa erakundeak 2010eko datuak aurkeztu ditu; bisitari kopuruaren gorakada dela-eta, iazkoa «errekor historikoez betetako urtea» izan dela esan dute.

Inoiz baino turista gehiago



Bulebarreko Harrera eta Informazio Bulegoa. UDALA

Aritz Sorzabal

Errekor historikoez betetako urtea». 2010eko ekitaldiko memoria aurkezteko orduan, Donostia Turismoa erakundeak halaxe deskribatu du iazko urtea.

Hain zuzen ere, kopuruei dagokienez, inoiz baino bisitari gehiago bertaratu dira Donostia-ra; 471.088, hain justu. 910.217 gau igaroaldi zenbatu izanagatik ere, 2010a «urte bikaina» izan dela nabarmendu dute: 2009arekin alderatuta, 50.000 bisita eta

90.000 gau igaroaldi gehiago izan dira 2010ean; %13 eta %10 gehiago, hurrenez hurren.

Datu bat nabarmendu dute; turista atzerritarren kopuruak %3 egin duela gora, alegia. Hala, bisitari atzerritarrak %38 izan dira iaz, 175.637 lagun, 2009an baino 29.009 gehiago. Estatukoak %62 izan dira, 295.401, 23.557 gehiago.

Bisitari kopuruaren igoerak ere eragina izan du Harrera eta Informazio Bulegoan; 250.000 bisitari kopurua gainditu dute lehen aldiz. «Horrek esan nahi du aurreko urtean baino %14 bisita

gehiago izan direla. 2010ean zehar, sasoz kanpoko turismoa sakondu dugu, arrakastarekin; turismo gutxien izan ohi duten hilabeteak izan baitira, hain zuzen ere, hazkunde handiena izan dutenak», azaldu dute Donostia Turismoa erakundeak.

Hauek eta beste datuak «ezinhobeak» direla berretsi dute, «gaur egun igarotzen ari garen krisi ekonomikoa kontutan hartuta batez ere».

Norako onenaren saria

Bestalde, batzar eta azokei buruzko datuak ere eman dituzte

jakitera. 2010ean, 124 bilera egin dituzte eta ekitaldietan, azokak barne, 174.551 pertsonen hartu dute parte. Orotara, 2009arekin

Gau igaroaldiek %11 egin dute gora apirilean

→ Iazko datuez gain, Udalak joan den apirileko zenbakiak ditu jada esku artean. Horien arabera, azken hilabeteetako igoerak ez du etenik.


Hain zuzen ere, Eustaten Establezimendu Turistiko Har-tzaileen inkestak dio 2011ko apirilean 83.627 gau igaroaldi eman direla hirian; 2010eko hilabete berean baino %11 gehiago, hain justu.

Turista kopuruan ere gorakada izan da apirilean: 45.308 sarrera zenbatu dituzte, 2010ean baino %6 gehiago. Donostiak Gipuzkoa bisitatu duten bidaiarien %58 jaso ditu.

alderatuta, 37 batzar gehiago eta 6 azoka gutxiago antolatu dituzte.

Sariak ere jaso dituzte. Izan ere, Turismo Bikaintasunerako programari esker, hiriak 2010eko Kalitatezko Turismo Norako Onena garaikurra jaso du. Sari hau Espainiako Industria Ministerioaren mendeko Turismo Idazkaritza Nagusiak eman ohi du, Estatuko ehun helmuga baino gehiagoren artean, bikaintasunaren alde egindako lanarengatik.

• sinadura@berria.info



www.euskalherriko **PLAZA**.com

PUNTU ESTRAK (irailera arte)

kot 8 puntu

Erosteagatik lortzen diren puntuez gain...

TTAK 3 puntu

produktu hauek **puntu estrak** dituzte.

Fortunak 71. Mendi Zeharkaldia antolatu du eta, 1941. urtean egin zuten moduan, Goñitik Berazubira joateko asmoa dute

Lehenengo mendizaleek egin zuten moduan

Estitxu Zabala

Fortuna Kirol Elkarteak badu zer ospatu aurtengoan, azkar edo poliki, 100 urte bete baititu. Urtebetezaren aitzakian, hainbat ekimen antolatu ditu klubak eta, horien artean, 71. Mendi Ibilaldia dago. Izan ere, 1941etik, urtero urtero lekuz aldatu dute mendi martxa, baina aurtengoa berezia izanik, lehenengoan egindako bide bera gogoratuko dute igandean. Hala, Aralarreko mendilerroa zeharkatu eta Tolosako Berazubi zelaian izango dute helmuga.

Bi ibilbide egongo dira aukeran; luzea eta motza. Ibilbide luzea, duela 70 urte egin zuten bera izango da. Nafarroatik irtengo dira, Goñitik. Handik Ergoiena haranetik Lakuntzara jaitsi eta Aralarre igoko dira; Iratzeko zelaia eta Arritzagako sakana zeharkatuz. Gero, Zaratek Otsabiora egingo dute eta, Altzotik gertu igaro ostean, Ollagonetik Tolosara iritsiko dira. Ibilbide motza, berriz, Lakuntzatik irtengo da eta, ondoren, ibilbide luzearen bide bera jarraituko du.

Gora-behera handikoa

Fortunaren Mendi Zeharkaldia klubeko mendizale talde batek sortu zuen. Tartean zegoen Luis Peña Basurto, *Montañas Guipuzcoanas* gida-liburuaren egilea. Ibilbide neurrien hastapenetan zeuden orduan eta, Fortunako talde hark Bilboko Alpino Club eta Madrilgo Sociedad Alpinak ezarritako egitasmoa jarraitu zuen. Hala, ibilbide horietan, lehena nor iritsi baino, antolakuntzak ezarritako erritmoa jarraitzea eta proba bukatzea ziren garrantzitsuenak.

Zehazki, 1941eko uztailean 13an egin zuten lehen mendi ibilaldi neurtua. Arrakasta handia izan zuen deialdiak eta garai hartako



1941ean sortu zuen Fortunako talde batek mendi zeharkaldia. GUREGIPIZKOA/GIPIZKOA ARTXIBO OROKORRA

baldintzei egokitu ziren partaideak: alkandora edo kamiseta eta galtza luzeak edo belaunetarakoak. Gainera, garai hartako egunkarien arabera, Berazubin bildutako jendetzak partaideak txalo artean jaso zituen. Bereziki, orduko andereinoak.

Urteen poderioz, geroz eta ospe handiagoa hartu zuen zeharkaldiak eta Hamar Orduko Ibilaldia izena jarri zioten, 1947an. Besteak beste, 1971ean, Elgoibar eta Donostia arteko bidea egin zuten; beraz, 13 Orduko Ibilaldia jarri zioten izena. Garai hartan, politikan egon ziren aldaketek eragina izan zuten mendizaletasunean eta, bi

urtez, mendi zeharkaldia bertan behera utzi behar izan zuten; 1974 eta 1975ean. Gainera, hurrengo urteetan partaidetzak sekulako jaitziera jaso zuen eta 20 laguneko taldetxoan geratu zen. Gauzak hala, beste lagun talde batek ze-

Politika kontuak zirela eta, mendi zeharkaldia bertan behera geratu zen bi urtez; 1974-1975

harkaldia bultzatzeari ekin zion. Ibilbide berriak bilatzeko ahaleginak egin zituzten. Izen berria ere eman zioten; Mendi-Gizarteko Ze-

harkaldia. Informazioa zabaltzeari ekin zioten eta ibilbide malkartsuagoetara jo zuten. Berrito ere probak gora egin zuen 1980ko hamarkadan eta 200-300 lagun artean batzen zituen.

Aipatzekoa da, zeharkaldiak lau aldiz gainditu dituela Euskal Herriko mugak: 1996an, Burgoseko Frias herrira; 1988an, Errioxako San Vicente de la Sonsierra; 2000an, Zaragozako Sancho Abarcasantutegira; eta 2007an, Burgoseko Herranera.


Antolatzaileen hitzetan, egun zeharkaldiaren erronka nagusia mendi ibilbide erakargarriak lortzea da; 1941ean proba sortu zute-

nen ispiritua mantentzeko asmoarekin. Egund, mendi zeharkaldien artean, ekitaldi gehien dituen proba da Estatu mailan eta horrela izaten jarraituko du, datozen urteetan ere antolatzen jarraitzen badute.

Izen ematea lekua bete arte egongo da zabalik, hau da, 330 lagunetara iritsi bitarte. Klubaren webgunean bertan egin daiteke izen ematea, oraindik ere: www.cdfortunake.com. Informazio gehiago nahi duena klubarekin ere harremanetan jar daiteke, honako telefonoan: 943-214900.

● ezabala@hitza.info

71. FORTUNA MENDI IBILALDIA



ITURRIA: Fortuna Kirol Elkarte.

↓ Mendi Zeharkaldia

■ **Non.** Nafarroatik Tolosako Berazubi zelaira.

■ **Luzera.** Ibilbide luzea, 53 kilometro. Ibilbide motza, 37 kilometro.

■ **Noiz.** Ekainak 5, igandea.

■ **Gehienezko partaide kopurua.** 330 lagun.

■ **Izen ematea.**

www.cdfortunake.com.

Azken eguna, bihar, ekainak 3.

■ **Prezioa.** Ibilaldi luzea edo motza+autobusa, 20 euro. Ibilbide motza edo luzea, autobus zerbitzurik gabe, 14 euro.